



*Bada garaia hitzarmenak eguneratzeko eta industriako langileen lan baldintzak hobetzeko, guztion lan baldintzak hobetzeko. Bada garaia industrian aberastasuna banatzeko. Hain zuzen ere, hauxe izan da LABek egunotan zabaldu duen aldarrikapena, mobilizazioen bitartez. Lehen protesta [Donostian](#) egin zuen sindikatuak, asteartean, Gipuzkoako enpresen elkarte Adegiren egoitzaren aurrean; bigarrena asteazkenean izan zen, [Gasteizen](#), Arabako enpresarien elkarte SEAREN egoitzan; hirugarrena ostegunean etorri zen, [Iruñean](#), Nafarroako enpresarien elkargo CENen aurrean. Bada, mobilizazio sorta hauekin amaitzeko, LABek manifestazio bat egin du gaur Bilbon, euskal enpresen elkargo Confebasken egoitzatik abiatuta.*

LABeko Industria federazioko kide Iñaki Alkortaren hitzetan, "patronalaren jarrera antisoziala, arduragabea eta mafioso salatzeko mobilizatu gara gaur Bilbon, bereziki, Confebask eta CEBEKEN jarrera salatzeko. Ekonomia gorantz doala esaten betetzen zaie ahoa, kopuruak ematen dituzte gainera, baina, hau gertatzen den bitartean, hamar langileetatik seik ez dute hitzarmenik edo euren hitzarmena ez dago indarrean. Honekin bukatu beharra dago. Langileen bitzta erdigunean jartzeko garaia da, eta ez enpresen irabaziei buruz hitz egiteko garaia. Errealitate honi buelta eman behar zaio".

LABeko ordezkariaren esanetan, "gero eta prekarietate gehiago dago. Gazteek gero eta zailtasun gehiago dituzte industrian modu duinean lanean hasteko eta sektoreak %19<sup>a</sup> bakarrik da emakumea. Onartezina da hau guztia. Sortzen ari den aberastasun hau guztia, milioika eta milioika euro, beste modu batean banatu behar da".

